

# Onomastika Larramendiren hiztegian\*\*

BLANCA URGELL\*

**RESUMEN  
LABURPENA  
ABSTRACT**

En este trabajo se demuestra que la onomástica es una de las fuentes del léxico vasco recogido en el *Diccionario Trilingüe* de Larramendi (1745), así como semillero y modelo de sus neologismos. Se estudia también qué tipo de nombres propios recogió y cómo los interpretó y, además, se ofrecen las razones teóricas que le impulsaron a darles este uso.

*Lan honetan frogatzen da onomastika Larramendiren Hiztegi Hirukoitz-ean (1745) bildutako euskal lexikoaren iturrietako bat dela, baita haren hitz berri zenbaiten mintegi eta eredu. Halaber, maitzen da zer-nolako onomastika jaso zuen eta jasotakoak nola interpretatu zituen eta, azkenik, erabilera hau lotzen da horretara eraman bide zuten arrazoi teorikoekin.*

This work shows that the Onomastic is one of the sources of the Basque lexicon compiled in the Diccionario Trilingüe by Larramendi (1745), as well as the seed and model for its neologisms. It also studies the types of names which were compiled and how they were interpreted also offering theoretical reasons why they were given this use.

**PALABRAS CLAVE  
GAKO-HITZAK  
KEY WORDS**

Onomástica, Toponimia, Lexicografía, Neologismo, Larramendi

*Onomastika, Toponimia, Lexikografia, Neologismoa, Larramendi*

Onomastics, Toponymy, Lexicography, Neologism, Larramendi

\*\* Lan hau egiten, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzatutako eta Joseba A. Lakarrak zuzendutako "Fundamentos para unos *Monumenta linguae vasconum*: historia, crítica y edición de textos vascos (II)" (HUM2005-08047) ikerketa proiektuaren laguntza izan dugu. Jatorriz, gure tesiaren (Urgell 2000a) ataletako bat da, zeharo berregina, eskarmentua eta denbora lagun.

\* UPV/EHU

**H**enrike zenaren oroopenean lantxo hau eskaintzeko aukera atsegirnez eta damuz hartu dut; atseginez, bera baitzen gai honetan espero nezakeen irakurlerik onena; eta damuz, goizegi joan baitzaigu, eta bere ohar adeitsu eta jakintsuak faltan emango baititut. *Requiescat in pace.*

Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz* (1745; aurrerantzean *HH*) corpus mugatu baten —euskarazko A letraren— bitartez (1) aztertzen ari ginelarik, ustez ustekabe ohartu ginen hiztegiko hitzen iturrien artean onomastika ere bazela. Lehen zantzu haien bermatzeko, A letratik kanpo ere begira aritu gara, zerrenda ezberdinak baliatuz (toponimia bildumak, deitura hiztegiak, etab.), halabeharra alde batera uzteko asmotan, eta gaude ondorioak alde honetatik dudaezinak direla.

*HH* ezagutzen duena harrituko da, haren nomenklaturan ez baitago izen bereziengatik ia. XVI-XVII. mendeetako Ingalaterrako hiztegileek, besteak beste, beren lanak leku eta pertsona-izenez hornitzea hiztegia aberasteko æta, jakina, hiztegi erabiltzailea bere irakurketetan eta hezkuntzan laguntzkoæ bidetzat hartzen zuten. (2) Alabaina, *Diccionario de Autoridades* lekuko (aurrerantzean *DAut*), (3) une batetik aurrera hizkuntz hiztegi hutsak (edo ia hutsak) egiteko joerak indarra hartu zuen, eta Larramendik, eredu izan zuen Espainiako Akademiaren hiztegi horri honetan ere hertsiki jarraiki, berak ere ez die lekurik egingo izen bereziei.

Kontua da onomastikatik hartutakoek ez dutela nomenklaturan aztrenik utzi, ezta izen bereziak bereizi ohi dituen hasierako letra larria atxiki ere; aitzitik, sarrera barruan daude, euskal hitz arrunten tokian eta haiekin nahaste.

Lan honetan, bada, hiru helburu nagusi ditugu: lehenik eta behin, onomastika *HH*-ko lexikoaren iturrietako bat dela frogatzea, eta Larramendik nongo eta nolako onomastika hartu zuen aintzat begiratzea (§ 1), bai eta nola erabili zuen (§ 2). Bigarren, zergatik erabili zuen azaltzea (§ 3) eta, hirugarren, nola interpretatu zuen aztertzaea, baita analisi lan honek hiztegigile eta hitzberrigile gisa bere jokabidean izan zituen ondorioak ere (§ 4). Onomastika dena eta ez denaren arteko muga eztabaidatzen ere ahaleginduko gara (§ 5). Eta, amaitzeko, aurrekoaren argitan, iradokiko dugu zertan alda daitekeen hitz eta atzizki zenbaiten izaeraz eta bilakaeraz daukagun irudia (§ 6). Bukaieran, onomastikarekin erlazionatutako *HH*-ko euskal hitzen

(1) Hiztegia gaztelania-euskara norabidean antolatuta badago ere, erakusgarria euskararen arabera hautatu dugu, hiztegi osokoa izan dadin.

(2) Ik. adibidez Starnes (1954: 72-73). Frantsesezko hiztegietan, berriz, izen bereziak —erabilera figuratua-edo ez izatera— sartzeko uzkurtasun handia egon zen Trevoux-en hiztegiaren 1721eko berrargitalpenera arte (Quemada 1967: 310-319).

(3) “...han quedado excluidas del Diccionario todas las voces y nombres propios de personas y lugares, que pertenecen a la Historia y a la Geographia” (*DAut* 1726: vi).

## 1. ONOMASTIKA HIRUKOITZ-EAN

zerrenda bi aurkituko ditu irakurleak, eranskin gisa: batetik, A letrako gure laginekoia, informazio historiko eta dialektalez lagunduta, eta bestetik, handik kanpo kausitu ditugun gainerako aleak.

Behin onomastika osagaiaz ohartu eta gero, *HH*-an horren aleak aurkitzea aski lan erraza da. Gipuzkoako herrietatik hasita, emaitzak berez mintzo dira:

*abalcizqueta* “melodrama”, *aduna* “trigo nuevo”, *amezqueta* “carvallar”, *arrasate* “demolición”, *astigarraga* “arboleda de ellos [tilos]”, *berastegui* “baxada”, *gaintza* “alteza”, *gatzaga* “salina(s)”, *guetaria* “fumante”, *iciar* “tamujo, arbusto espinoso”, *lasarte* “lastre, especie de piedra tosca, es voz Bascongada, lastrea, lasta, síncope de *latsarte*, *lasarte*, entre arroyos u riachuelos, que es donde se encuentran tales piedras”, *lezo* “fieltra”, *lizaur* “monacillo, monago, monaguillo”, *mendaro* “mayorana, yerba”, *orio* “oportunidad”, *ormaistegui* “(lugar donde se) empareda”, *zumarraga* “(alameda de) negrillos o álamos negros”.

Gipuzkoatik kanpora ere ateratzen jakin zuen, nahiz inguruko topónimoak (Bizkai-Gipuzkoetakoak batez ere) gainerantzeoak baino hobeki ordezkatuta egon:

*amezagaza* “carvallar”, *bayona* “puerto”, *elorriaga* “espinar”, *ereiño* “sementera”, *guecho* “humillo”, *lacuntza* “ayuda”, *larrabezua* “pasturage”, *larrañaga* “eras”, *mañaria* “mañero, el que tiene maña”, *manurga* “coche”, *marquina* “márgen”, *orozco* “público”...

Hurbilketa modura, bildu berri ditugun adibideakuste dugu aski direla onomastika *HH*-an bildutako euskal lexikoaren iturrietak bat izan zela erakusteko, zeren gehienak ez baitira inondik inora ere hitz arruntak, eguneroko jardunean erabiltzen direnetakoak, onomastikatik zuzenean –eta berariaz– hartutakoak baizik: zer ote dira *abalziketa*, *manurga* eta *larrabezua* bestela?

Alabaina, hain nabarmenak ez diren *HH*-ko beste hitz batzuk ere onomastikatik datorzela ohartu gara Larramendiren biografiaren laguntzaz, besteak beste. Izan ere, Andoain eta Azpeitiako datuak arreta handiz jaso ditugu, bai baitirudi jaioterriko eta bizileku inguru-koia inongoa baino hobeto ezagutzeko eta erabiltzeko abagunea izan zukeela. Aitor dezagun garrantzi handiko toki batzuk, hala nola Hernani eta Loiola inguruko beste herriak, aztertzeko daudela oraindik eta, beraz, Andoain eta Azpeitiaz esan dezakeguna honek daukan paperaren erakusgarritzat baino ez da hartu behar. (4)

---

(4) Hutsunerik handiena Hernaniko datuetan egon liteke. Izan ere, Larramendik bere burua bertakotzat zeukan, amaren herrikotzat hain zuzen –andoaindarren artean, ordea, andoaindartzat arukezten zuen bere burua, gizalegez (Altuna 1992a: 3-4); aitaren herrian familia hiruzpalau urtez baino ez zen bizi: 1694an, bera jaio eta hirugarren urte pasatxora, hurrengo arreba janak Hernanin jaio zen, ondoko guztiek bezalaxe.

Hala bada, Andoainek ustekabean *arboila* “tejo, para jugar” hitzaren etorkia antzemateko modua eman digu, bertako *Arboilleta* parajearen arabera; zerikusi zuzena izan lezake, gainera, biltzailearen buruan haurtzarotik gordeta leudekeen *aizkorri*, *amezti*, *apeztegia*, *argindegia*, *ariztia*, *arratia*, *arriaga*, *arieta*, *artia* eta, oso bereziki, *aranzibia*, *arbitza* eta *arizaga* toponimoen erabilera, besteak beste. Bestalde, Azpeitiako onomastika ere lagungarri izan da, guztiz, beste batzuk bezain ohikoak ez diren zenbait izenen azalbidean (*abalia*, *abarrategi*, *aitzaga*, *aitzeta*, *apaiztegi*, *arbizu*, *arizaga*): ez da miresteko, ahozko euskara azterzean ere nabaritu baitugu –hemen baino aiseago, gainera– Loiola inguruko euskararen eragina HH-an (Urgell 2000d).

Larramendik bildutako onomastikaren eta haren bizitzaren artean nolabaiteko erlazioa badenez, *elemendi* “(monte de pastos para) ganado” azaltzeko, gogoan har dezakegu Baionako egonaldian Domingo de Elemendi izeneko lagun jesuita bat izan zuela (*Autobiografía* 21, 20. oh.), aukeran Bizkaiko menda baino errazago (cf. Azkue 1905-1906, s.v.). Izan ere, antroponimo hutsak edota antroponimo gisa askoz ezauganago direnak ere badira bat edo beste, hala nola *munita* “alcor, voz antiquada, lo mismo que cerro”, *garmendia* “ahumada, en las atalayas” edo *untzeta* “hederal”.

Halaber, erraz antzematen dira apologiagile tradizio luzean barna atzera eta aurrera ibilitako gaiak, hala nola *baiona*, Oihenartengandik hartua, eta *ormaistegi*, Etxaberren etimologia baten ildotik datorrena. (5)

Onomastikak corpusean duen lekua ez da handia, ordainen kopuruaren bederen: A letrako lagineko 4.867 lematan 54 (%1,1) baino ez dira handik zuzenean aterea diren edo izan litezkeenak (ik. 1. eranskina).(6) Izan ere, ez daude ezta Gipuzkoako herri guztiak ere, eta hemendik ondoriozta dezakegu Larramendi ez zela iturri oparo hau agortzen saiatu, baizik eta, agidanez, noizbehinka erabili zuela, arau edo eredu jakinik gabe, bilduma sistematikorik baliatu gabe, agian aukera sortu ahala edo burura etorri ahala, besterik gabe.

Onomastikatik berreskuratutako hitzei hiztegian bi leku esleitzen zaizkie, beste edozein euskal hitzi bezalaxe: gaztelaniazko hitzen euskal etimologien berme edota haien euskarazko ordain. Batean zein bestean, ez dirudi handik zetozela azpimarratzea garrantzizkoa edo

## 2. ONOMASTIKAREN ERABILERA

(5) Xehetasunak 2. eranskinean (s.vv.). Honetaz orokorrean ik. Urgell (2000c).

(6) Halere, herabeki jokatu dugu zenbaitetan, lehenengo hurbilketa baino ez izanik, hala nola maileguetan, erakusgarri modura sartutakoak gorabehera, batez ere euskal etimologia dutenetan: *Akorda*, esaterako. Gero ikusiko dugunez, hala ere, ziurrenik behin baino gehiagotan onomastika eta etimologia elkarren berme izan ziren Larramendirentzat.

interesgarria iruditu zitzzionik, nahiz honek ez duen esan nahi ezin-bestean haien etorkia ezkutatu nahi zuenik. Hirutan bakarrik aurkitu dugu onomastika argudio legez agerrian erabilita:

Artica, artiga, tierra desmontada para sembrarla: es voz de el Bascuence, en que ay apellidos de Artica, y una jurisdicción en San Sebastián que se llama de Artiga.

Otañez, jocosamente se llama así al que acompaña a una Señora, especialmente si es anciano, es voz Bascongada, de que ay también apellido *otañez*.

Tarbea, sala grande, es voz Bascongada, de que tenemos también apellido...

Behin ere ez, ordea, hiztegiko sarrera arruntetan. Gogora dezagun hitzen etorki dialektala ere isilean gorde zuela, norberaren euskalkikoak ez direnak erabiltzeko atzerapena izan lezaketen euskaldun txe-pelen aitzakiak saihesteko asmoz eta, beraz, hitzak guztiek erabili eta orokor bilaka zitezentzat (Larramendi 1745: xlvi). (7)

A letrako corpusean, etimologien azalpenetan lau ditugu (*aizkorri, antia, arizaga eta artola*), eta etimología eta ordainetan, bietan, hiru (*aribe, arteaga eta arzello*); zazpi, guztira (%13). Corpusetik kanpo ere, ez dirudi kontua asko aldatzen denik: bi (*ormaetxea, osinaga*) etimologietan, eta lau bietara (*baiona, lakuntza, lasarte, markina*). Gainerakoak beti erdal hitzen ordain gisa agertzen dira.

Oro har, *HH*-ko gaztelaniazko sarrera arruntetan sartzen dira, hots, *DAut*-etik datozenetan, baina gutxi batzuetan Larramendik sarrera berriak osatu behar izan zituen, onomastika erdal ereduak eskaintzen ez dituen edukien adierazle den orotan: *aginaga* “donde los ay”, *astigarraga* “arboleada...”, *elemendi* “monte...”, *larrañaga* “eras”, *ormaistegi* “lugar donde se...”, *zumarraga* “alameda de...”.

Funtsezkoa deritzogu jabetzeari onomastikatik lortutako ordainak ez direla hutsalak, hiztegia nolanahi betetzeko erantsiak, baizik eta beste edozein hitz bezalakoxea. Aukera dagoenean, esanahikideen sarreretan errepikatzen dira (cf. *abodia, altuna, amezketa, arboila, argindegia, arrati, arriola, arruti, atxaga, baiona, elemendi, garmendia, lakuntza*, etab.) eta gaztelaniazko hitzaren familia etimologikoaren sarrerak eratorpen eta elkarketaren bitartez ordainez hornitzeko gaitasuna dute (cf. *abodia, argeda, aribe, arkaia, arroki, arruti, arzelllu, markina, ormaistegi*). Egitate hauek berresten dute izen bereziok azal eta barne izen arrunt bihurtu eta gainerakoen baltsan baliatu zituela euskal lexikoa osatzeko.

Bereiz aipatu behar da Larramendik onomastika erabili zuela –beste etorkitako hitzetan ere erregulartasunez egin bezala– gero behar ahala emankor bihurtuko zituen lehengaiak lortzeko (atzizki ihartuak, erro

---

(7) Bestalde, praktikan hitz arrunten eta toponimoen etimología zein bere aldetik egitearen alde azaldu zen, gai hauetaz kezkatu ziren bere aitzindarien etimologiez egin zuen era-bilerak erakusten duen bezala (ik. Urgell 2000c).

zaharrak, elkarbideak) eta eredu gisa forma analogikoak sortzeko. Bainaz honetaz hurrengo atal batean (§ 4) mintzatuko gara.

Aizkibelex honela azaldu zuen halako edukiari bere hiztegian –batez ere eranskinean– egin zion harrera zabala: (8)

...como en el transcurso de tantos siglos en que ha estado la Euskera sin fijarse por medio de la escritura, se han perdido muchísimas voces, de las cuales algunas radicales solo están en uso en los nombres de ríos, montes, caseríos, ciudades, apellidos, etc., en composición con otras conocidas, me ha parecido conveniente colocar estos nombres en el sitio correspondiente al orden alfabético, bien sea con su significación en castellano, o sin ella cuando no esté bien seguro de conocerla (Aizkibel 1883: iii).

Jokabide honen –eta, funtsean, euskarri ematen dion ustearenlorrazak Azkuerengan aurkitzen dira oraindik:

*Arratia* “2º nombre de un valle de Bizkaya”, *Atxuri* “2º (B), un barrio de Bilbao”, *Elemendi* “(B-arb), nombre de un monte en Bizkaya (V. *Ele*, 1º)”, *Elorrio* “2º villa de Bizkaya”, *Orio* “2º río y pueblo de Guipuzcoa”.

Gure herritarrek ariketa (erlatiboki) erraz honetarako izan duten eta duten zaletasuna azaldu beharrik ez badago ere, euskal lexikografien historian izan duen eragin iraunkorra, berriz, ezezaguna da, are aipatu berri ditugun adibide nabarmenotan ere, agian oso erraza dela-kо azaltzen, itxuraz behintzat: Aizkibel eta Azkue ez lirateke zaletasun horren adibide garaiaik baizik, eta onomastikaren erabilera lexikografikoa, anekdotikoa baino ez. Azken finean, XVI eta XVIIko historiagile eta apologiagileengandik hasita jakin-min beraren erakusgarriak dozenaka aurkitzen ditugu ia non-nahi eta, bestalde, begi-bistan dago euskara-erdara ordenan antolatutako hiztegiak –aipatutako biak bezalakoek, alegia– hitz arrunt eta toponimoen arteko erlazioa ikusarazteko edota toponimoen azalpena emateko berebiziko aukera eskaintzen zutela.

Haatik, Aizkibelex dioena ez du berak asmatu: Larramendiren ganaino eta are harago daraman pentsaera batetik dator, eta katearen begiak hurrenkera ulergarri batean ezartzeko, haren aitzindariengana jo behar dugu. Larramendi baino lehen euskarari buruz idatzi zutenentzat toponimia euskarak irabazi behar zuen gudu baten zelaia zen tubalismo edo kantabrismoaren eztabaidei zegokienez; euskara gorai-patu zuten heinean, berriz, haren botere azaltzailea, haren filosofiko-

### 3. ONOMASTIKA LARRAMENDIREN EGITASMOAREN BARRUAN

(8) Ez da garaiko lekukotasun bakarra; Campomanesek Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteari egin zion hiztegi egitasmoan, hauxe zioen: “5.º Los nombres Geográficos de ríos, montes, pueblos y sitios forman otra de las fuentes más importantes del Diccionario” eta “6.º Los apellidos tomados de la Geografía, de la situación de las casas solariegas, de los patronímicos y de las virtudes o vicios del ánimo o disposición del cuerpo son otras partes del idioma, y de que debe hacerse igualmente colección” (1773, ap. Echenique 1997: 190-191). Elkartearen aurrean hartarako osatutako biltzarrauk aurkeztu zuen egitasmoan ere bi puntuak jasotzen dira (ap. Mitxelena 1965: 103).

tasuna neurtzeko lursail bigun bezain oparoa. (9) Larramendik, ez dago esan beharrik ere, ez zien lan bati ez besteari uko egin, baina lis-karraren oihartzunak hiztegiaren ateetaraino –hitzaurreinano, zehazki– baino ez dira iristen. Inor ez zen gehiegi harrituko *HH* ehundaka toponimoz osatu izan balu, zein bere azalpen etimologikoarekin, gaztelaniazko hitzen etimologiekin egin legetxe, eta berak inork baino hobeto zekien aukera hori hortxe zegoela:

...pues todos los nombres Bascongados tienen alguna significación, especialmente de Páises, montes y ríos (Larramendi 1745: lxxii).

Passo a otro argumento semejante, pero más claro. Tómole de los apellidos Bascongados, que son de nombres compuestos, y significativos en nuestra Lengua (*ib.* lxxiii).

Baina ez zuen egin. *DAut*-en ereduari irmo atxiki izanak azal lezake, aldez behintzat, etimología batzuk bai eta besteak ez barneratzeko arrazoia. Ikusiak ikusirik, ordea, aitortu behar dugu ereduaren zama ez dela arrazoi nagusia, onomastikaz egin zuen bestelako erabilera baizik.

Larramendi ez zen berritzairen izan hiztegigintzan, baina bai euskaren erronkari eman zizkion aterabideetan, eta hain zuzen esparru honetan kokatu behar dugu onomastikaren betebeharra *HH*-an. Beste leku batzuetan polikiago azaldu dugun bezala, aldez Larramendiren beraren hitzetan, aldez (eta batez ere) *HH*-ko datuetan oinarrituta (Urgell 2000e eta 2004), uste dugu ezen, euskara kultur hizkuntza bilakarazteko asmotan (ik. Lakarra 1985), eta hizkuntza beti bat delaiko ustean oinarrituta, Larramendik hiru erabaki hartu zituela, bata bestearen osagari, euskal lexikoa zabaldu eta eguneratzeko: jatorrizko ondarea biltzea, bildutakoa aztertzea eta azterketaren ondorioak hitzberrigintzan erabiltzea.

Jatorrizko ondarea, Jainkoak euskara sortzean eman o men zion lexiko aberastasuna, denborarekin galduz joan da, gizakiaren oroimen-a ahula baita berez, baina badago hein batean bederen berreskutzterik: izan ere, Larramendiren iritzian jatorrizko lexikoa euskalkietan barraiatuta dago, eta haren beste hondar zenbait aurki litezke han-hemen, batez ere inoiz auzoko izan genituen hizkuntzetan mailegu gisa gordeta edota onomastikan fosilduta. Honatx, bada, erabileraren arrazoia eta funtsa. Ideia bera, ordea, ez da berea, hainbat arlotan bidegile izan zuen Oihenartena baizik:

Sunt etiam quaedam alia nomina vetera Hispanica, ab hac litterâ incipienta, quorum usus licet iam in familiari sermone Vasconum obsoleuerit, olim tamen

---

(9) Balioespen interesgarria egin zuen Mitxelenak (1980) Tovarri (1980) egindako erre-seinan. Banaka batzuk ikertuta daude: Zaldibia eta Garibai (Zubiaur 1990), Poza (Coseriu 1972, Gorrochategui 1987, Zubiaur 1990 eta Juaristi 1992). Larramendiren erdal iturriak azterzean (Urgell 2000c), onomastikako alderdi zenbait, eta batez ere euren arteko erlazioen zantzuak hala nola Larramendiren hiztegiaren izan zuten eraginaren erakusgarriak ugari bildu ditugu. Bide batez, nabari da bertan, jadanik jakina ez balitz, onomastika interpretatzeko zaletasuna ez dela euskaldunena edota euskarari buruzkoa bakarrik izan.

inualuisse conicimus, ex eo quod eadem adhuc durant in nominibus propriis locorum quorumdam aut familiarum Vasconiae, talia sunt *Atahona*, nomen vici in ceteriore Nuarra, *Arroz*, pagus quidam in Hospita valle *Ataharaze* vicus in Vicecomitatu Solensi (Oihenart 1656: 47-48).

Hizkuntzaren gorputza, lexikoa, suntsikorra bada ere, iraunkorra da oso æhizkuntzak bizirik dirauen arterainokoaa haren arima, gramatika. Jatorrizko ondarea aztertzean, arimari dagozkion arauak aurkitu eta horiek berak neologian erabiltzea esan dugu zirela Larramendiren beste bi erabakiak. Onomastikatik erdietsitako gaietan bi urrats hauek ere eman zituela, ondoko atalean ikusi behar dugu.

Hemen ere esan daiteke gainerako hitzekin egin zuen berbera egin zuela (cf. Urgell 2004), baina hurbilxeago daude erdal hitzen etimologietatik erdietsitako ordainak (cf. Urgell 2009) bestelakoak baino, zeren bi arlootan euskarak denborarekin galduztako osagaiak, antzinaiko osagaiak, berreskuratzten ari delakoan baitago Larramendi eta, beraz, biotan zenbait berezitasun (fonetikoak batez ere) konpondu, azaldu edo gainditu behar ditu.(10) Ikus dezagun prozesua urratsez urrats:

4.1. Homonimiak edo paronimiak ematen diote bide onomastikaren erabilera. Homofono izatea ez da ezinbesteko, aski baita, izan ere, antzeko izatea: *a(ha)ldun* eta *altun* (*altuna*), *anti* eta *andi* (*antia*), *arru* eta *arro* (*arruti*), *ge* eta *ke* (*getxo*, *getari*), *lakunza* eta *lagunza*, *liza* eta *eliza* (*lizaur*), *las* eta *lats* (*lasarte*). Denborak eta hiztunen axolakabekeriak eragindako aldaketak, nonbait. Hau ez da trikimailutzat hartu behar: *lakunza* aipatu gabe ere *lakun lagun-en* aldaera gisa era-biltzeko gauza da *lac-* azaldu behar duenean (*lacayo-ren* etimologian; ik. 2. eranskina).

4.2. Izena kratilikoki banatzen du, hots, berezko (jatorrizko) esanaria bilatuz eta, azken batean, osagaiak hauteman nahiz. Hitz batzuen azalpena begi-bistakoa da (*amezketa*, *arriola*, *astigarraga...*) –edo hala dirudi, behintzat (cf. § 6)–, eta beste batzuena (*aribe*, *artola*, *getaria...*) Larramendik berak eskaini digu era batera edo bestera, baina ez da beti hala, ezta maila berean ere. Adibidez, nabarmena da *Larrabezua-ri* “pasturage” erdal itzulpena egokitu zaiola batez ere haren lehenengo osagaien oinarrituta eta, ilunxko bada ere, pentsa dezakegu beharbada bigarrena *bezoa* “costumbre”-rekin lotuta dagoe-la,(11) baina maiztxo erdizka edota aieruz baino ezin ditugu azalpe-

#### 4. ONOMASTIKA INTERPRETATZEN

(10) Cf. “Las voces, muchas por lo menos, con el uso, con el tiempo, con el capricho, se añaden, se cortan, se invierten, se desfiguran; y, qué remedio para reducirlas a su primer estado, esto es, para saberle, hallándoles su origen? No hay otro remedio que añadir lo cortado, y cortar lo añadido, enderezar lo torcido y poner en su lugar lo trastocado de las sílabas y letras” (Larramendi 1745: cxlv), antzeko aipu gehiagoren artean.

(11) Ik. etimologia s.vv. *abezarse* eta *bezoo HH-an*.

nak asmatu: *abalia* “melodía” *abo-* ‘ahoa’-rekin lotua dateke, eta honen ildotik aise ondoriozta dezakegu *abalziketa* “melodrama, diálogo en música” *abali(a)* + *(h)izketa* dela; *arzellu*-rako, agian *ar(tu)*-n pentsatu beharko genuke. Behin edo behin *DAut*-ek laguntzen digu: *aranzibia* “oxyacantha” *aranza* eta *zi* ‘punta, ziria’ elkartetik sortua bide da, *DAut*-en (s.v.) azalpen etimologikoaren ia hitzez hitzeko kal-koia baita (-*bi* gorabehera): “Es voz Griega que significa Espina aguda”.

Baliteke kasuren batean berak ere azalpen argi eta zehatzik ez iza-tea. Esate baterako, *ereño* “sementera” edo *mendaro* “serranía” kasuetan, balirudike behin erroa identifikatuz gero, zati ulergaitzei ez diela kasu handirik egin (*erein* + *x*, *mendi* + *x*). Dena dela, argi dago bestetan gure zailtasunen –eta inoiz ezintasunaren– ondorio baino ez dela: *munita* “alcor” eta *munoa*-ren arteko lotura hain da nabaria (cf. gero *munoa* “cerro”), ezen azken zatia azalgabe uzteko bulkada izatea ulertzeko baita; hala ere, sarrerako beste ordaina *mendisca* dela kontuan harturik, badirudi *-ita* hori gaztelaniazko txikigarritzat hartu (12) eta, dena dela, mantentzea erabaki zuela Larramendik, euskal etimologiadun maileguetan ere ikusi dugun bezala (*arrabietu*, *arrasila*, *arropila*, *arropoi*...; cf. Urgell 2008a). Zeharo zatikaezin eta ulerte-zintzat ditugunak ere badira batzuk: *aduna* “trigo nuevo”, *lezo* “fiel-tró” eta *orio* “oportunidad”. Beranduago eztabaidatuko ditugu (§ 5), baina esan dezagun honek gogoratzen duela Larramendiren neologismoen iluntasun eta zatigaiatzasuna (cf. Mitxelena 1984: VII).

Erabileren malgutasuna interpretapen bikotzeakoak –homofonos, nahi bada– onartzean antzematen da: *mendaro* *menda* zein *mendi*-rekin lotuta dakusgu (“mayorana, yerba” eta “serranía”); are hirukoitzeko bat ere badugu: *arkaia*-ren azpian noiz *aragi* (“cecina”), noiz *argi* (“vela”), (13) noiz *artu* (“puño”) dautza. Hau ere ez da ezinbestekoak: *artadi*-ri esanahi bakarra ematen dio, “maizal”, nahiz *arte* “encina” ere erabil zezakeen: honen ordez, *arteaga* hautatu du zuhai-tzerako. (14)

4.3. Corpuseko 54 hitzetatik 40k (%74) atzizkiren bat dute edo Larramendik badutela ulertu zuen. Toponimian ohikoak diren bukaerak dira maizenik:

-AGA (*aginaga*, *aitzaga*, *altzaga*, *amezaga*, *aretxaga*, *arizaga*, *arriaga*, *arteaga*, *astigarraga*, *atxaga*), -TEGI (*abarregi*, *apaiztegi*, *apeztegi*, *argindegi*, *aristegi*, *aunzegi*, *austegi*), -(K)ETA (*abariketa*, *aitzeta*, *amezketa*, *arrieta*), -DI (*amezti*, *aranzadi*, *arizi*, *artadi*), -TE ‘multzoa’ (*aranzate*), -TZA (*arbitza*), -ZU (*arbizu*), -ARTE (*lasarte*).

(12) Antroponimo honen gaurko interpretapena, *Munio* pertsona-izen berezia + *-eta* da (Mitxelena 1955: §§ 235 eta 457).

(13) Eta bi interpretapen hauek lotuta daude, inolaz ere, *aragi* eta *argi*-ren elkartu-eratiorriei ematen dien tratamenduarekin (Urgell 2003 eta 2009c).

(14) *Arte*, *arto* eta *ardi*-ren eratorrien nahasketaz ik. Mitxelena (1955: § 95).

baina beste eratorpen atzizki askok –txikigarriak barne– ordezkariak dituzte, eta batzuek bat baino gehiago:

-TI (*antia, arratia, arruti, artia*), -TE ‘ekintza’ (*alzate, arrasate*), -ARI (*getari, mañari*), -TZA (*lakuntza, gainzta*), -DUN (*altuna*), -GAI-/KAI (*arkaia*), -GIN-/KIN (*markina*), -KETA ‘ekintza’ (*abalizketa*), -KI (*arroki*), -TXO (*getxo*) eta -ZKO (*orozko*).

Hitza ulertu nahian lehentasunez atzizkiak bilatzea Larramendiren joera orokorra da, hala *Eranskin*-aren iturri idatzietako hitz ulergaitzetan (Urgell 2008b) nola etimologietan (Urgell 2009) nabaritu dugu-na, eta bere aurkikuntzak oro har aipagarriak dira, honelako azterketek zeukaten æeta daukaten (?)æ maila eskasa kontuan izanik, (15) baina ez dago argi interpretazio guztiak seguruak direnik. (16)

Gure zerrendan toponimiako atzizkien agerraldi kopurua lotuta dago *HH*-an duten emankortasunarekin: *-aga*, *-tegi*, *-(k)eta* eta *-di* emankorrik dira han, eta badirudi norabide bakarrean azal dezakegu-la, hots, badirudi toponimiako atzizkiak ordurako ihartze maila ezberdinan zeudela, zeharo ihartuta ez bazeuden. Haietako batzuk erraz sumatu eta analizatu zituenet, ez zuen eragozpenik izan errrotik erauzi eta biziberritzeko, *arraianaga*, *adiundetegi*, *alkaparreta* eta *andredidi* bezalako neologismoak eginez. Beste batzuk, berriz, oso bakan baino ez zituen aurkitu (*arbitza, arbizu*), eta ez dakigu noraino izan zen atzizkia sumatzeko –eta, beraz, emankor bilakatzeko– gauza: beharbada halako hitzak, *ereño*-ren modura, erroaren arabera bakarrik interpretatu zituen, ez jakin.

4.4. Esan bezala, ez zaizkio axola onomastikako fonetismo bereziak. Areago, eskuarki gorde ere gorde egin ditu, hala nola bokal arteko frikaria (*amezagana, arizaga*) edo kontsonante aurrean *s/z* oposaketa neutraltzea (*aristegi, ormaistegi*). (17) Hau da, inondik ere, corpuseko hitz bat onomastikatik hartutakotzat jotzeko daukagun argudiorik indartsuenetakoa.

Formak egokitu edo ez, tirabira honetan, haren iritziz euskarari ez legozkiokeen zenbait hondar gordetzen ikusi dugu (*gogora munita*),

(15) Adibide onenetako bat (*h)andi* hitza atzizkiduntzat jotzea da. *Andi* eta *anti* balioki-detzat emanez (s.v. *osadía*). Larramendi hitza zatikagaria dela eta bigarren osagaia beste izenondoetako *-ti* atzizkia bera dela iradokitzen ari da. Ondoko azalpen saio gehienek, ostera, horzkaria ere errokoia dela jakintza eman dute (ik. *MDELV* s.v.), ebidentzia guztien aurka (cf. orain Lararra 2002: 435).

(16) Adibidez, *-te* multzokaria balio honekin deskribatu gabe zegoen, baina esanahikide bikoteetatik atera behar izan dugu: *aranzadi* eta *aranzate* “espinar”, *aintziradi* “(lugar) paludososo” eta *aintzirate* “marjal”, *arkaizdi* eta *arkaizte* “breñas” (Urgell 2009b). Baten batean *-te* beharrean, baliteke *-ate* egotea, beharbada, baina ezaguna da onomastikaren opakutasuna, guztiz esanahia eta forma elkartu nahian gabiltzanean. Beranduago beste alderdi zenbait salantzapean jarriko ditugu (ik. § 6).

(17) Bestelako hitzeten ere aurkitu dugun arren (Urgell 2001: § 4.18), bistan da *aritz-ekiko* lotura beste asko baino gorde errazagoa zela. *Ormaistegi-n*, berriz, etimologiak bermutatuako *s-a* da, *itxi*-rekin lotzen baitu (ik. 2. eranskina).

baina bestetan kendu ditu, hala nola erromantzezko (ustezko?) plura-la *argedu* (top. *Arguedas*) eta *arzellu* (antrop. *Arzellus*) hitzetan.

4.5. Hitz arruntetan bezala (Urgell 2008c), hemen ere atzeranzko eratorpena egiten jakin zuen Larramendik: haren bidez *abalia* eta *abalizketa* elkarrekin lotu zituen (18) eta, antza denez, *abarizketa*-tik –nahiz EGH-an (148) bakarrik– beste lekukotasun askerik ez duen *abaritz* “carrasco” atera zuen (cf. OEH, s.v.). *Arboila*-k Andoaingo *Arboilleta* lekuaren (edo antzeko baten) izenetik sortua bada, hitz honek frogatuko luke Larramendik noizean behin atzizkia kendu eta oinarria bakarrik profitatu zuela (cf. *ikaztegi(eta)* ere ziurrenik); areago, ziur aski hemen oinarritu behar ditugu hainbeste hitz eta etimologiatan erabili zuen *boila* (iz.) “bola”, “globo”, (izond.) “redondo” erroa, bestetan ezezaguna: *ariboilla* “ovillo”, *armoila* “roel”, *artoila* “tuerca”... (Urgell 2009c). Kontua ez da hain harrigarria: gaurko informatzaile batek lekuaren harri zuri eta borobil ugari dagoela zehaztu du, *arr(i) + bo(r)o(b)il + eta* dela iradokiaz (Usabiaga 1993), hiztunentzat oraindik ere etimologia hori nabari dela argi aski utzirik. (19)

4.6. Onomastikatik zuzenean hitz zaharberriak hiztegitatzeaz eta behar ahala haien erorriak-eta egiteaz gain, haren analisiak agerian ipinitako osagaiak eta elkarbideak ere baliatu zituen Larramendik, emankor bihurtuta, hiztegia hitz berriz osatzeko. Aurrerago ere joan gaitezke: ikusi ditugun datuen arabera, onomastika neologismoak egiteko erabili zituen ereduetako bat izan zen.

Iturri honen erabilera berezi bat –aldez bakarrik berezia, laster iksiko dugunez–, onomastikan aurkitzen duen itxura fonetiko bitxia dela eta, bere eguneko euskarari dagozkion forma analogikoak sortzea litzateke: *altuna*-tik *ahaltuna* sortu zuen, baita *ahalduna* bera ere ziurrenik; *arruti*-tik *arroti* izenondo hiperkategorizatua, eta *getaria*-tik *keeztaria*, aldi berean ordain berria eta (guretzat) leku-izena nola interpretatu zuen jakiteko modu ezin baliotsuagoa. Antza denez, denborak itxuraldatutako formak berreraikitzentz edo lehengoratzentz ari zen, jatorrizko itxura garbian ipintzen. Bi hitzak, zaharra eta zaharberriuta, elkarrekin agertzen dira sarreran, elkarren aldaerak bailiran, eta honek gogora dakarzkigu hitz arruntetan ere aurkitu ditugula honelaiko forma analogikoak, Larramendik bildu duen forma kalkatzen dutenak bere (edo beste) euskalkietako ohituren arabera. Adibidez, *aitzaga* eta *atxaga* sarrerakideak, biak ere ondo lekukotu ditugu onomastikan, baina ez da ezinbestekoa jatorri bana proposatzea, zeren erraz baino errazago ondoriozta baitzezakeen Larramendik *aitzaga atxagatik*, demagun, Leizaragarenetik hartutako *ahanzkor*, *aize buhunba* eta

(18) Aizkibelek, honetaz ohartuta nonbait, *Abalizketa* “zuzendu” zuen.

(19) Bidenabar esanda, honek ez du esan nahi etimologia ezinbestean zuzena denik, maiz etimologia nabaria herri etimologia baino ez da eta. Hori erabakitzea ez dagokigu guri, noski.

*atseman* hitzen alboan *aztukor* eta *anzkor*, *aize bunbada* eta *atsemon* jarri zituen moduan, iparraldeko hitzak hegoalderatz edo.

Onomastikaren ereduaren eragin analogiko hori ziurrenik handia-goa da. Eguneratzea baino gehiago da *abalcizqueta*-ren arabera *otsezitziqueta* esanahikidea sortzea, *achaga*-renera *peñaga* (20) eta *aranzadi*-renera *larradi*. (21) Analogiak sarreraren mugak ere gainditzen ditu, eta eratorpen eredu orokorrak eskaintzen: cf. *araistegi* “cárcel”, *ormaistegi* “lugar donde se empareda”-ren eredura egina, nonbait. Alde honetatik bada corpusean antzematen ez den xehetasun oso jakingarri bat: Azpeitiako toponimian *Arkabakotxa* (pagadia) eta *Askabakotxa* (Iursail eta otadia, 1810) ditugu, Laramendiren *-bakotxa* elkartu ugariak gogora dakartzatenak: *adarbacocha* “unicornio”-z gain, *beguibacocha* “monóculo”, *gudabacocha* “monomachia”, *bereisbacocha* “monostrophe”... (Urgell 2000a: §§ 4.1.18 eta 4.1.34), eta haien eredu izan litezkeenak.

Lehengaia berrerabili zituela jakinik, urrats handi bat eman dezakegu *HH*-ko ezkutukietako baten ulerpenean. Onomastikako *-da* bukaera Laramendik gure *-te* aditzizengilearen erara interpretatu zuen (*argedra* “retención”), hiztegiko hitz gutxi batzuetan bezala (cf. *araulida* “preposteración”); baita, halaber, *-ti* izenondogilearen erara ere *-i* bukaera (*arantzia* “espinoso”), (22) hiztegiko hitzen batean bezala (cf. *aieri* “propenso” eta, oro har, Urgell 2003). Honen paretsuan jar daiteke *-te* bakarrik aurkitu izana (*alzate* “empino”, *arrasate* “demolición”), erdaldeko euskalkietan *-bere* euskaran, besteak beste– maizago agertzen den *-tze*-ren ordez. Gauzak honela, baliteke onomastikan egotea eratorpenean sumatu ditugun zenbait gertakari xelebreen azalpena, eta ez alderantziz.

Onomastikaren eragina badela frogatzea erraza da, baina haren mugak noraino hedatzen diren erabakitzea zaila. Uste dugu oro har ezinezkoa izango dela muga argirik ezartzea, eta agian mugak berez ez duela interes askorik, baina bai, dena dela, irakasgarri izan daitekeela honetaz hausnar egitea.

Errepara diezaiegun lehenik *lezo* eta *orio-ri*: toponimiaz kanpo lekukotasunik ez dutenez gero, pentsa genezake Laramendik inoiz edo behin hiztegian sartu zituela, arrazoi sentimentalengatik edo bestela, interpretapen errazik ez daukaten izen berezi batzuk, adiera arbi-

(20) *Peña*-k, jakina, euskal etimologia dauka (ik. *HH*, s.v.).

(21) *Lardi* espero genezakeen (ik. EH, s.v. *lahardi* eta cf. *Lardizabal*, Mitxelena 1955: § 381, adibidez), baina, dena dela, *-di* atzizkia azterzeraoko oinarria mugaturik duten hitz gehiago (*astamaizadi*, *aitzadi*) aurkitu ditugu (Urgell 2009b).

(22) Itzulpenez gainera, sarrerak berak bermatzen du gure interpretazioa, zeren binaka bil daitezke bertako ordainak: batean *aranzduna* eta *larduna*, bestean *arantzia* eta *lartia*.

## 5. ONOMASTIKATIK DENA ETA EZ DENA

trario bat –nork daki zerk eraginda– emanik. Alabaina, orain artean Larramendiren sistema ezagutzeko egin ditugun hurbilketa guztiak erakutsi digute haren hitz berriak nola edo hala motibatuak direla, hots, nolabaiteko morfoak elkartuz sortuak eta, hortaz, haietan berriz bana ditzakegula, morfo direlakoak identifikatzeko gauza garen heinean. Halako askatasuna hartzea, hortaz, sistemaz kanpoko gertakaria litzateke. (23)

Dena dela, demagun hala egin zuela: orduan, zergatik *orio* eta *lezo*, eta ez *andoain* edo *hernani*? Zergatik muga eta marrarik gabeko altxorra Karrantzan hasi eta Atarratzten buka ez ustiati? Orduko lexikoaz dakigunaren urriak tentuz ibiltzera gonbidatzen gaitu, ez ote ditugun azalpenik errazenaren laguntzaz hain zuzen hura ezagutzeko daukagun iturririk oparoenetakoa baliogabetuko. Esate baterako, *lezo* eta *orio* horiek funtsean herri-izenak balira ere, ez da ezinezkoa halakoek herri mailan toponimiaz kanpoko erabilera izatea: *orio HH-an* “oportunidad” izateak *elorrio*-ren kasua gogorarazten digu, “penalidad, tribulación” adieran ezaguna baita herriaren inguruko euskaran (V-pleger-m-gip, G-azp, ap. *OEH*, s.v. 1 *elorrio*); beste aukera bat genuke *olio*-ren aldaera ezagunaren esanahi hedadura izatea ere. *Lezo* “fieltro” eta “sobretodo”-rako, berriz, soingaineko berezi batzuk han egiten zirela, han batez ere erabiliak zirela edo antzeko azalpenen bat kausi liteke. (24) Esanak esan, bistan da ez dugula hipotesi honen aldeko daturik lortu; besterik ezean, bada, *HH-an* hobeto oinarritu ahal izan dugun hipotesia hobetsiko dugu: Larramendik hitzetan antzeman zukeena guk ere antzemateko zailtasunagatik eta haren analisi sistema osoki ez ezagutzeagatik batzuetan ez dugu asmatzen hitzak nola zatikatu behar diren.

Halako hitz zailak, erabat ilunak, alde batera utzita, corpusean hiru multzo egin daitezke, gure ustez, zenbait irizpide argi xamar bederen bakoitzari egokituaz. Lehenengo multzoan, inolako zalantzariak gabe onomastikatik datozenak jarriko genituzke. Honetan sartzen dira toponimo eta antropónimo huts begi-bistakoak (*abalziketa*, *aizkorri*, *alzate*, *antia*, *arantzia*, *aranzate*, *aranzibia*, etab.), fonetismo bereziak dituztenak (*amezaga*, *arizaga*, *aristegi*, etab.) eta beren atzizki nabarmenki ihartuagatik hartakotzat har ditzakegunak (*arbitza*, *arbizu*, -*aga* eta -(*k*)*eta*-dun guztiak eta, geroago xehekiago eztabaидatuko dugun arren, baita oraingoz -*di* atzizkia dutenak ere).

Bigarrenean, zalantzazkoak, bi azpimultzo eginik. Alde batetik, atzizki bizi bat (adibide guztiak -*tegi*-renak dira) edo toponimian ohi-

(23) Oso adierazgarria da, adibidez, *Deba* ibaia dela eta, egin zuen adierazpena: “No puede darse etimología oportuna a este nombre, aunque por capricho se le pudieran dar algunas” (*Corografía* 28).

(24) Adibidez, Covarrubiasen ere uste zuen *fieltro*-ren etimología toponimiarekin lotuta zegoela: “Covarr. le da la etymología de Feltre o Feltria, Ciudad de la Rhexia, donde dice se inventó este género de tela”.

koa den bigarren osagai bat (*ola*) daramatenak. Neurtu gabe dago hala-koek tokian tokiko toponimian noiz eta nola ihartu diren eta, beraz, ezin ziur egon gaitezke Larramendik halako edo holako hitza zein ego-eratan ezagutu zuen. Adibidez: *apeztegia* deituratik atera zuen, (apai-zekin zerikusirik izan zein ez) hala zeritzan etxe baten izenetik ala erdal “presbiterio” delakoari (25) izen hau ematen zioten euskaldunen ahotik?

Bigarren azpimultzoan, berriz, elkartuak (*abodi*, *aribe*, *arburu*, *astorki*): Larramendiren elkarbidearen arabera arazorik gabe azaltzen direnez gero, badukegu kasualitatean pentsatzea, baina, dena dela, orain arte azaldutakoaren arabera, gure iritzian denak ere birziklatutako toponimo-antropónimoak dirateke eta, areago, egituraren eta esa-nahiaren aldetik beste elkartu batzuen kidekotzat jo ditzakegunean ere, egiantzekoa da oso, kideko hutsak izan beharrean, besteen eredu iza-tea: *abodia* “canal(es) en la arquitectura” (*abe + odi*) ulertuta, *arkodi* “tragaluz” (*argi + odi*) eta *atsodiak* “bronchios” (*ats + odi*) egin ahal izan zituen, eta *astorki* “onobryche” (*asto + orro + -ki*) ulertuta, *aitizki* “patronymico” (*aita + hitz* edo *izen + -ki*) eta *auskeztiki* “girapliega” (*hauts + ezti + -ki*), besteari beste.

Eta hirugarren multzoan, hitz arruntak jarriko genituzke. Bi hautagai argi ditugu: (a) *alba*, Larramendik jaso zuen adieran, Iparraldeko liburueta erabilia izateari zor zaio batik bat (Urgell 2000b); (b) *aduna-k*, *lezo* eta *orio-tik* ez oso urrun, ez du “trigo nuevo” nola izan litekeen jakiteko biderik ematen, zeinagatik uste baitugu baserritarren artean egindako galdeketei zor dakieela (Urgell 2000d). (26) Laburbilduz, honelakoetan erlazioa, izatekotan, alderantzizkoa dateke: hitzak toponimoa azalduko lioke Larramendiri, eta ez toponimoak hitza eskainiko; edonola ere, batak bestea bermatzeko moduan leudeke.

Sakon dezagun orain aipatutako arazoetako batzuetan:

5.1. Euskara historikoan *-tegi* atzizkia emankor denez, nekez era-baki dezakegu *a priori* gure corpuseko hitzak 1745 inguruan onomasti-kan fosilduta zeuden, ala eguneroko jardunean erabiltzen ziren, toki-ren batean behintzat, ala Larramendiren sorkuntza paraleloak diren. Batzuetan pisuzko arrazoiak ditugu, dena dela, onomastikaren alde egiteko: *abarrategi-ko abarra* oinarriak ez du azalpenik, dakigularik (cf. *abártei*, Izagirre 1970: 41); *apaiztegi* eta *apeztegi* etxe-izenak eta haietatik sortutako deiturak aski zabalduak dauden bitartean, “presbi-

(25) Cf. DAut (s.v. *presbyterio*): “El plano o área del altar hasta el pie de las gradas, por donde se sube a él, que regularmente suele estar cercado con una reja o barandilla de hierro. Llámase así porque en lo antiguo solo se permitía entrar en él a los sacerdotes o presbíteros”.

(26) Kasu honestan, esanguratsua izan daiteke DAut-ek ez dakarren sarrera bati buruz ari garela jakitea, baina ez dakigu toponimoaren alde erabakitzeko lain den: corpus zabalagoa behar, inondik ere.

terio” itzulpena tradizio horren aurka joateaz gainera, kultismoa da eta, beraz, Larramendiri egotz dakooken interpretazioa. Halaber, *OEH*-ak (s.v.) islatzen duen erabateko lekukotasun faltak, gure uste-ko, aski gora mintzo da *argindegī*-ren ihartasunaz. *Austegi*, berriz, hitz herrikoi eta bizia izateko aukera gehien daukana bide da, ez bakarrik antroponomioen urriagatik, baita adierazten duen zera zeharo arrunta –XVIII. mendean orain bainoago, noski– izateagatik ere. *Aunztegi*-k halakoxea ematen du hasieran, baina baliteke *artegi*-tik inferitu zuen (edo hiztunek inferitu zuten) *arditegi*-ren eredura egindakoa izatea, *austegi* ez bezala.

5.2. Bigarren osagaian *-ola* daukatenak, hiztegigileak ugaldu bazi-tuen ere (cf. *adrilola* “ladrallal”), onomastikatik hartuak dira: *arriola*-k *argindegī*-ren azalpen berbera dauka, eta berak bezalakoxeko maiatz-suna toponimian; *artola*, Larramendik eman dion adieran berak baka-rrrik dakar, etimologiak eraginda. Izan ere, badirudi Larramendiren interpretazioa (“fábrica de...”) berria dela, lehenagoko tradizioan denek onartzen baitzuten *ola-* zein *-ola* toponimoak burdinola zaha-ren izenak zirela, besterik gabe:

...tantos sitios, y lugares que en mi lenguage nombramos en estas Provincias con *Olea*. Que es herrería, como *Olaçaula*, *Olauerria*, *Çuazola*, *Gauiola*, *Mendiola*, *Egurrola*, *Balçola* y *Loiola*, con otros infinitos que sería cansancio referirlos, todos los más de los cuales fueron casas de fundición, donde a mano se labraula el hierro... (Etxabe 1607: 57r). (27)

...ponían sus Fábricas en Montañas, y qualquier parage que fuese acomoda-do para carbón; de que oy ay vestigios, assí de nombres de Montes, y Caserías, llamándose Olaerriaga, Olacorta, Olave, y otras, que quieren decir en lengua Vizcayna, Herrería quemada, Herrería ensel, debaxo de Herrería (Villareal de Berriz 1736: 43).

*HH*-an, berriz, *egurrola* “(oficina de) carpinteros” eta *loiola* “alfa-har, oficina de barros” dira. Hona Larramendiren azalpena:

Estas [las herrerías] han sido y son en Guipúzcoa las oficinas principales y más estimadas y practicadas de todas, y se han levantado con el nombre general de oficinas: en la lengua del país, *ola*, *olea*, significa *oficina* en general, y se especifican las oficinas particulares por adjetivos de la materia particular y lugar en que se labra: *arriola*, oficina de cantería; *loyola*, oficina de alfarería; *ibarrola*, oficina de ribera o valle; *barrenola*, oficina de tierra adentro, y así de otras. Pero nuestras herrerías por autonomas se han levantado con el nome común, de manera que diciéndose *ola*, *olea*, sin aditamento alguno, se entiende la herrería, no de herreros, sino de ferones oficiales de herrerías grandes (*Corografía* 64).

## 6. HITZ ETA ATZIZKI ZENBAITEN HISTORIARAKO

6.1. Azertzeke dagoen atala izaki, lan hipotesi zenbait baino ezin egin. Bereziki interesgarri deritzegu toponimiako atzizkien historiaz egin daitezkeen inferentziei: Azkuek (1923-1925: § 26-28, “Ojeada

(27) Eta ia hitzez hitz Isastik (c. 1620: 236) ere.

sobre los fósiles de la Toponimia” deritzan atalean) ihartutakotzat dituenak, itxura guztien arabera halaxe zeuden baita Larramendiren garaian ere, baina honek biziberritu zituen. Jauzi bat egin dezagun XX. menderaino: Azkueren hiztegian bezala gerokoetan ere, zuhaitz-multzokariak eta antzerakoak nagusiki *-di* atzizkiak adierazten dira: gure corpuseko *-aga* guztiak zeharo desagertu dira (Azkuerengan bakarrik agertzen den *alzaga* izan ezik), eta *-(k)eta* atzizkiak tradizioan *-di* atzizkidun kidekorik ez daukatenetan (*abarizketa, harrieta*) bakarrik iraun du. Joera gorantz joan da gero: Elhuyar 1993an *abarizketa*-ren ordez *abarizti* “abaritez osatutako baso edo sastrakadia” berri-berria agertzen da, *harizti*-rekiko analogian oinarriturik, non-bait.

Murrizketaren arrazoiak bat baino gehiago bide dira, nahiz batzuk besteak baino eraginkorrago izan; arrazoi txikien artean aipa daiteke *-di* atzizkidunak *HH* baino lehenagoko hiztegietan lekukotzen diren bakarrak izatea (cf. *amezti* eta *arizti*), eta *-aga* eta *-keta* *--di* ez bezala— topónima handian halako maiatasunaz agertzea (*Aginaga, Amezketa*, etab.). (28) Arrazoi nagusia, nik uste, Azkuerengan beraren-gan aurkitu behar da, eta honek berresten digu hainbat kontutan orain-dik ere haren hiztegiak ezarri zuen ereduari bezala haren iritzi eta era-bakie zeharo lotuta ari garela. Alde batetik, ezaguna da mende hasie-ran *-di-k* bizitasun berria erdietsi zuela; berak aitortzen du (*loc. cit.*): “El derivativo topográfico *di* (...) lo hemos introducido en neologismos como *gaztedi* juventud y el nombre de nuestra Corporación [*Euskaltzaindia*]”. Honen alboan –hau baino lehenago, hobeki esan-da— hiztegian *-di* bakarrik agertzen da multzokari zereginetarako ezaugarritu eta adibideztatua: “derivativo local que denota abundan-cia. *Arantzadi, elordi*, espinal. *Miilludi*, hinojal. Uriarte emplea la palabra *ontzidi*, ‘escuadra, multitud de buques’ (*Maiatz. 72*)”; *-aga*, berriz, hildakotzat ematen du (“sufijo muerto que denota lugar. *Arriaga, harriaga*, pedregal. *Elizaga*, lugar de la iglesia”), eta *-tza* zein *-tzu-n* halako erabilera denik ere ez du aipatzen.

6.2. Zenbait hitzen lexikografi jaiotza eta iraupenaz datu berriak erdietsi ditugu. Jakina, Larramendiren hitz gehienek bezala, *abalia-k* edo *aranzibia-k* ez dute ondorenik izan, ez baitzuten Azkueren ira-gazkitik aurrera egiterik izan, eta XX. mendeko hiztegietan ezezagunak dira. Badira, haatik, zuzenean edo zeharka guganaino iritsi dire-nak ere: (a) Azkueren hiztegian sartzea izan arren, geroagoko kritika-lanak uxatu dituenak (cf. Mitxelena 1970): *arratia* (Aizkibelen bitar-tez sartua), *arkai(a)* (Iturriagaren bitar-tez) eta *ariola* (Astarloaren bitar-tez); (b) egoera berean, *-di-ren* aldeko joerak ezabatu dituenak: *alzaga* (Azkueren iturria aztertzeko dago); (c) Azkuek Larramendi-rena dela iradoki bazuen ere, artean nolabaiteko erabilera (Lizarraga

(28) Bide batez, honelako gertakariek iradokitzen dute *-aga / -eta* eta *-di*-ren ihartze pro-zesuak ez zirela aldi berekoak izan.

Elkanokoa, Lardizabal) izatearren hiztegi berriean sartzea lortu du (*h)arroki*-k, baina beti ere *belaki* hobeto lekukotutakora dei eginez; (29) (d) Azkueren hiztegian agertzeagatik, batzueta entzunak izan direlako itxuran, ondoko hiztegietara igaro direnak: *abarrategi*, (*h)aijalde*, (*h)ariztegi*, *artadi*, *a(h)unztegi* (Arakistainen bitartez); esan gabe doa, hauetarako Azkuek izan zuen iturria zehaztea garantzitsu izan litekeela; (e) geroago berreskuratu direnak (*aran(t)zadi*, (*h)argindegi*, (*h)arrieta*).

Adibiderik interesgarri eta argiena, *abaritz*-ek eskaintzen digu, Larramendiren hitzetatik irautea lortu duten bakanetakoa (eta ezezaguna, oker ez baldin banago): esan bezala, *HH*-an *abarizketa* bakarrik jasotzen da, *abaritz EGH*-an Larramendik egiten duen eransketa den bitartean. Hemen egin dugun interpretazioaren arabera, *abarizketa* toponimo argia da eta, ondorioz, *abaritz* hiztegigilearen suposizio bat besterik ez (baina ez horregatik nahitaez okerra, noski). (30) “Erruduna”, oraingo honetan, hainbaten sarbide izan zen Lakoizkaren autoritatea da.

## 7. ONDORIOAK

Larramendik, isilgordean edo, zenbait toponimo eta antropónimoren azalpena –gehienetan berria, ez gutxitan ona edota onartua– eskaini zuen hiztegian, hemen eta kanpoan oso indartsua zen tradizio bati jarraiki eta, honen barruan, haien ohiko osagaiak (*ola* gisakoak) eta atzizkiak (-*aga*, -*keta*, etab.) bere erara interpretatu zituen. Azterzeko dugu haren interpretazioek izan duten iraupena eta eraginkortasuna.

Alabaina, hau ez zen haren xedea izan, onomastika euskararen abeaspide bilakatzea baizik, euskararen jatorrizko edo berezko aberastasun lexikoaz aldeztu zuen teorian implizitu dagoen bezala. Nola bilatekatuko, eta bai arlo ihartu honetan soilik aurkitzen zen hitz andana bat berreskuratu eta lexiko arruntean sartuaz, baita, batez ere, haien osagaiak bakartu eta haien gramatikari erraiak atera, mekanismoa ulertu eta honetan oinarrituta hitz berriak egin ahal izateko, euskararen “arimaren” arabera. Onomastika, beraz, Larramendik euskararen sorbideak ikasteko eta lexikoa ugaltzeko erabili zituen lehengaietako bat dugu.

Onomastika ez zuen sistematikoki ustiatu, berak ezagutzen zuen heinean edo han-hemen irakurri edo entzun zuen heinean baizik. Alabaina, ez zuen anekdotikoki ere erabili: bertatik ekarritako hitzak oro har ordain arruntak dira, hau da, gainerako ordain arrunten artean

---

(29) Bien lekukotasunetarako, ik. *OEH*, s.vv.

(30) Azalpen ezberdin baterako, ik. Mitxelena (1955: § 373).

agertzen dira, haietkin nahaste, gaztelaniazko sinonimo ezberdinetan berragertzen dira eta erorri eta elkartuen oinarri bilakatzen dira.

Dudarik gabe, onomastikaren erabilera honek eskainitako hitz kopuru murritzean (ehun hitzetan bat edo) baino askozaz ere garrantzi handiagoa du Larramendik hiztegigile eta hitzberrigile gisa erabili zituen prozedura eta jokamoldeen lekukotasun gisa: *Eranskina bezalaxe, funtsezko lekukotasuna dugu alor honetan, zeren eta bietan mai-zenik etorki ezaguneko datuetan oinarritzen baikara –hots, kontrola daitezkeen datuetan–, bestetan ez bezala, batean onomastikako datuetan, bestean iturri idatzietatik ateratakoetan* (Urgell 2008b).

Ikertzeko dago, corpus zabalago baten zain, onomastikaren benetako eragina –hondare lexikoa berreskuratzeko beste bideen artean, hala nola erdal hitzen etimologiagintzarena– Larramendik erabili zituen sorkuntza ereduetan; hala ere, honen ondorioetako zenbait sumatu ahal izan ditugu, oraino lausoki bada ere, bai atzizkibidean, baita elkarbidean ere.

Azkenik, bidenabar baino ez bada ere, antzeman dugu onomastikatik berreskuratutako hitzek sarbide erraxagoa izan dutela XX. mendeko hiztegietan, *HH*-aren iragazki latza izan zen Azkuerentzat ezinbestean ezagugaitzago (edota onargarriago, beharbada) gertatu zirelako, hain zuzen ere.

- Agud, M. & A. Tovar, 1988-1994, “Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca”, *ASJU* 22:1etik aurrera atalka aterea lehenik, eta gero *ASJU*-ren 13 (a-ardui), 19 (ardun-beuden), 24 (beule-egileor), 26 (egiluma-galanga), 30 (galaniloza), 33 (ilpitzu-korotz) eta 37. (korpa-orlo) gehigarrietan.
- Aizkibel, J. F., 1883 [1855], *Diccionario basco-español titulado Euskeratik Erderara biurtzeco itzegia*, Tolosa: E. Lopez [Berrarg. faksim., Donostia: Izaro, 1984].
- Altuna, P., 1967, “Larramendiren iztegi berria”, *Euskera* 12, 139-300.
- Arzamendi, J., 1985, *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*, Bilbo: UPV/EHU.
- Azkue, R.M., 1905-1906, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, (2 lib.), Bilbo [Berrarg. faksim., Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969].
- \_\_\_\_\_, 1923-1925, *Morfología Vasca* [2. arg., Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969].
- Coseriu, E., 1972, “Andrés de Poza y las lenguas de Europa”, *Studia hispanica in honorum R. Lapesa III*, Madril: Gredos, 199-217.
- Covarrubias, S., 1611, *Tesoro de la Lengua Castellana o Española, según la impresión de 1611, con las adiciones de Benito Remigio Noydens publicadas en la de 1674* [M. de Riquer-en arg., Bartzelona, 1943].
- DAut* = Real Academia Española (1726-1739).
- Echenique, M.T., 1997, *Estudios lingüísticos vasco-románicos*, Madril: Istmo.
- EGH* = Larramendi, *Euskara-gaztelania hiztegia* (ik. Altuna 1967).
- EH* = Sarasola 1996.
- Elhuyar, 1993, *Hiztegi Entziklopedikoa*, Usurbil: Elhuyar Kultur Elkartea.
- \_\_\_\_\_, 1996, *Elhuyar hiztegia. Euskara-gaztelania, castellano-vasco*, Usurbil: Elhuyar Kultur Elkartea.

## BIBLIOGRAFIA ETA LABURDURAK

- Etxabe, B., 1607, *Discursos de la antigüedad de la lengua Cantabra Bascongada*, México [Berrarg. faksim., Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1970].
- Gorrochategui, J., 1987, "Andrés de Poza y el euskerá", in R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1987 (1992), 107-128 [Berrarg. in ASJU 21:3, 661-681].
- HH* = Larramendi 1745.
- Isasti, L. de, c. 1620, *Compendio Historial de Guipúzcoa*, Baroja, Donostia, 1850. [Berrarg. faksim., Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1985].
- Izagirre, C., 1970, *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*, L. Villasanteren arg., ASJU-ren gehigarriak, 4.
- Juaristi, J., 1992, *Vestigios de Babel. Para una arqueología de los nacionalismos españoles*, Madrid: Siglo XXI.
- Lakarra, J.A., 1985, "Larramendiren hiztegintzaren inguruan", ASJU 19:1, 9-50.
- \_\_\_\_\_, 2002, "Etimologiae (proto)uasconicae LXV", in X. Artiagoitia, P. Goenaga eta J.A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, Bilbo: UPV/EHU, 425-442.
- Larramendi, M. de, 1728, *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas*, Salamanca [Berrarg. Bilbo: Ediciones Vascas, 1978].
- \_\_\_\_\_, 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Donostia. [Berrarg. faksim., Donostia: Txertoa, 1984].
- \_\_\_\_\_, c. 1764, *Autobiografía y otros escritos* [J.I. Tellechea Idigorasen arg., Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1973].
- \_\_\_\_\_, 1764 c., *Corografía de Guipúzcoa*, ms. de la Real Academia de la Historia, fondo Jesuitas, leg. 62 [J.I. Tellechea Idigorasen arg., Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969].
- Libano, A., 1995, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Onomasticon Vasconiae 14, Bilbo: Euskaltzaindia.
- MDELV* = Agud & Tovar 1988-.
- Mitxelena, K., 1955, *Apellidos Vascos* [4. arg., Donostia, 1989].
- \_\_\_\_\_, 1965, "El Diccionario Vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País...", *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa* 6, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 99-126.
- \_\_\_\_\_, 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Bilbo: Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.
- \_\_\_\_\_, 1980, "Mitología e ideología sobre la lengua vasca [erreseina]", Muga X, 122-128. [Berrarg. in J.A. Lakarra (arg.), *Sobre historia de la lengua vasca*, ASJU-ren gehigarriak 10, 1988, II, 920-926].
- \_\_\_\_\_, 1984, "Aurkezpena", in I. Sarasola, 1984-1995, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, Donostia: GAK [Berrarg. "Atarioko" izenarekin in Sarasola (1996), I-XIII].
- \_\_\_\_\_, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia. Diccionario General Vasco* (15 lib.), Bilbo: Euskaltzaindia, etab.
- Mujika, L.M., 1989a, *Euskal Toponimiazko Materialeak. VI. alea. Gipuzkoako Erdi-Ekiäldea (Larraul, Asteasu, Zizurkil, Andoain, Urnieta)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- \_\_\_\_\_, 1989b, *Euskal Toponimiazko Materialeak. XII. alea. Gipuzkoako kostaldea (Azpeitia, Aia, Deba)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- OEH* = *Orotariko Euskal Hiztegia* (ik. Mitxelena 1987-2005).
- Oihenart, A., 1656, *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum aquitanicae...* [Berrarg. faksim., Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992].
- Oyhamburu, Ph., 1991, *Euskal Deituren Hiztegia I (A-D)*, Hitzak, Ossas-Suhare.

- Quemada, B., 1967, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863). Etude sur leur histoire, leurs types et leurs méthodes*, Paris, etab.: Didier.
- Real Academia Española, 1726-1739, *Diccionario de Autoridades* [Berrarg. faksim., 3 lib., Madril: Editorial Gredos, 1979].
- Sarasola, I., 1996, *Euskal Hiztegia*, Donostia: Kutxa Fundazioa.
- Starnes, W.T., 1954, *Renaissance Dictionaries, English-Latin and Latin-English*, Austin: University of Texas Press.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madril: Alianza.
- Urgell, B., 2000a, *Hiztegi Hirukoitzaren osagaietan*, UPV/EHUko tesi argitaragabea.
- \_\_\_\_\_, 2000b, "Larramendiren iturri idatzia (I): euskal liburuak", in Urgell (2000a), 923-1020.
- \_\_\_\_\_, 2000c, "Larramendiren iturri idatzia (III): erdal liburuak", in Urgell (2000a), 1081-1130.
- \_\_\_\_\_, 2000d, "Entzundako hitzak", in Urgell (2000a), 1131-1171.
- \_\_\_\_\_, 2000e, "Euskal hitza zer den edo hitzberrigintzaren oinarri teorikoak", in Urgell (2000a), 517-556.
- \_\_\_\_\_, 2001, "Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian", *ASJU* 35:1, 107-183.
- \_\_\_\_\_, 2003, "Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): eratorbideen analisia", *ASJU* 37:1 (argitaratzeko).
- \_\_\_\_\_, 2004, "Etimología eta hitz sorkuntza Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzean*", *Lapursum* 9, 299-310.
- \_\_\_\_\_, 2008a, "Maileguak Larramendiren hiztegian", *FLV* 40:1 (107. zb.), 5-44.
- \_\_\_\_\_, 2008b, *Larramendiren Eranskina: saio bat hiztegigintzaren testukritikaz*, *ASJU*-ren gehigarriak, 47 (argitaratzeko).
- \_\_\_\_\_, 2008c, "Hitz eraketarako baliabide orokorrak Larramendiren hiztegian", *ASJU* (argitaratzeko).
- \_\_\_\_\_, 2009a, "Etimologíak Larramendiren hiztegian", *FLV* (argitaratzeko).
- \_\_\_\_\_, 2009b, "Eratorpena Larramendiren hiztegian (II): atzikiz atzikiz", *ASJU* (argitaratzeko).
- \_\_\_\_\_, 2009c, "Elkarketa Larramendiren hiztegian", *ASJU* (argitaratzeko).
- Usabiaga, A., 1993, *Andoaingo Toponimia*, Onomasticon Vasconiae 10, Donostia: Euskaltzaindia.
- Villareal de Berriz, P. B., 1736, *Maquinas hidraulicas de molinos y herrerias y goyerno de los arboles y montes de Vizcaya*, Madrid. [Berrarg. faksim., Madril: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1973].
- Zubiaur, J. R., 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, Mundaiz, Donostia: Deustuko Unib.

Hitzen aldameanean toponimo-antropónimoak kokatzeko eta beren lehenagoko zein geroko bizitza ezagutzeko garrantzitsu izan daitezkeen datuak ematen dira, honako laburdura hauen azpian:

HIZT = *OEH*-aren laguntzaz lor daitekeen toponimiaz kanpoko lehen agerraldia jaso dugu lehen, eta ondoren hitza XX. mendeko hiztegietan bizirik dagoen ala ez erakusteko, Azkue, *EH* eta (gaurko hizkuntz hiztegi arrunten erakusgarri modura) Elhuyar hiztegiaren (1996) lekukotasuna.

TOP = Toponimiaz erdietsi ahal izan ditugun datu esanguratsuak biltzen ditu, Erdi Arorako Libano (1995), Andoaingoaz Mujika (1989a) eta Usabiaga (1993), eta Azpeitikoaz Mujika (1989b) erabilizaz. Atal honetan sartu dugu,

## 1. ERANSKINA. Onomastika A letran

halaber, Isastiren lekukotasuna (“Is” laburdurapean), “De las casas solares y de apellido en la Provincia de Guipúzcoa” (c. 1620: 90-119) ataletik atarea.

ANTROP = Antropomimiazkoak, lehenik Mitxelenaren (1955) iruzkinerako deia (“ApV” laburduraz), eta gero Oyhamburennetik (1991) atera daitezkeen zenbait lagungarri, hala nola lehen agerraldiaren data eta deituraren geografi hedadura; azken honetaz kontuan izan bedi lana egitean kalean zegoen lehen liburukiak A-D letrak soilik jasotzen dituela eta, beraz, *harri*, *haritz*, etabarren eratorriak kampo direla. Zenbait alderditan, Arzamendiren lana (1985) osagari erabili dugu. Euskalkiekin ez nahasteko, probintzien izenaren lehen bi letrak baliatu ditugu, salbu Nafarroa Beherea, NB laburduraz adierazi baitugu.

ABALIA “Melodía, *abalia*, *aheria*, *otsezzia*”. HIZT: 1745. TOP: (soroa; Azpeitia, 1848). ANTRON: ApV 4. 1399 (BI, GI). 1774 (Azpeitia).

ABALZIZKETA “Melodrama, diálogo en música, *abalcizqueta*, *otsezitzqueta*”. HIZT: 1745. TOP: *Abalzisqueta* (*Corografía* 49) GI-ko herria. ANTRON: ApV 4, 373. 1566 (GI).

ABARIZKETA “Carrascal, *abarizqueta*, *tartacadia*, *zarbaztaga*”. HIZT: 1745. Azk (*abariz* “carrasca, coscoja” < Lacoizqueta, *abarizketa* “carrascal”). EH (*abariz* 1888; cf. *abarizketa* 1745). Elhuyar (*abaritz*). ANTRON: ApV 4, 373. 1652 (GI).

ABARRATEGI “Chaparral, *abarrategua*, véase carrascal”. HIZT: 1745. Azk (“(Bc), leñera”). EH (1905). Elhuyar (1. depósito de leña. 2. chaparral). TOP: Is 117 (Mondragon). *Abarrategisoroa* (lursaila, Azpeitia). *Abarrategisorua* (larrea; Azpeitia). ANTRON: ApV 3. 1390 (AR, BI, GI). 1664 (Azpeitia).

ABODIA “Canales en la arquitectura, *boillutsac*, *abodia[c]*”. “Estrías, *boillutsac*, *abodiac*”. Cf. *abodiatiu* “acanalar”, “estriar”. HIZT: 1745. TOP: 1085 (Abodi, NA).

ADUNA “Trigo nuevo, *aduna*”. HIZT: 1745. TOP: GI-ko herria. *Aduna Aldea* (lursaila; Andoain).

AGINAGA “Donde los ay [tejos], *aguinaga*”. HIZT: 1745. TOP: AR (1114), GI eta NA-ko herria. Is 92 (Irun), 100 (Elgoibar), 101 (Placencia), 113 (Azcoitia). *Aginagaetxea* (Azpeitia, 1821). ANTRON: ApV 12.

AITZAGA “Peñascal, *aitzaga*, *achaga*, *aitzadia*, *arcaizdia*, *peñaga*”. HIZT: 1745. TOP: (baseria; Azpeitia, 1768).

AITZETA “Breñas, tierras ásperas y de peñascos, *aitzetac*, *arcaizteac*, *achagac*”. HIZT: 1745. TOP: (lursaila, Azpeitia). ANTRON: (GI).

AIZALDE “Barlovento, aizaldea, aizalboa”. HIZT: 1745. Azk (*aizalde* “barlovento”). EH (*haizealde* 1858, *aizalde* 1847). Elhuyar (*haizalde* “lado del viento”). TOP: Arigita Lasa SM 31, p. 213 (ap. OEH, s.v.). ANTRON: ApV 21.

AIZKORRI “Zancarrón, huesso de la pierna, u otro desnudo de carne, es de el Bascuence *zancorria*, *zancarroya*, que significa lo mismo; y se dixo de *zanca*, pierna, y *gorria* desnuda; porque *gorría*, *corria*, en composición, significa desnudo, v.gr. *larrugorri*, *biluzgorrian*, que se aplica al hombre desnudo, *oegorria*, cama desnuda de sábanas, &c. *aizcorria*, peña desnuda y sin plantas, &c.”. HIZT: 1745. TOP: *Aizkorri* (AR eta GI arteko mendia; *Corografía* 50). *Aizkorri* (mendia; Andoain).

ALBA “Alba, *eguanza*, *egunsentia*, *eguairea*, *arthatsa*, *arguiaren beguia*, *alba*”. HIZT: 1620. Elhuyar (“alba, amanecer”). TOP: 1040 (AR).

ALTUNA “Poderoso, *almentsua*, *altuna*, *alduna*, *ahalduna*. [...] Item *puchanta*, *puis-yantd*”. “Potente, *alduna*, *altuna*, *ahalduna*, *ahaltuna*, *almeneria*, *almenduna*”. “Prepotente, *guciz altuna*”. HIZT: 1745. TOP: Is 100 (Elgueta), 105 (Ibarra), 110 (Idiazabal), 114 (Urriztila), 115 (Zumarraga). *Altuna* (baseria;

- Azpeitia, 1625). ANTROP: *ApV* 34, 461. 809 (AR, BI, LA, NA eta, batez ere, GI). 1180 (Azpeitia).
- ALTZAGA “Alysal, *altzaga*”. HIZT: 1745. Azk (*altzaga* “alisa”). EH (*hultzadi* 1930, cf. *altzaga* 1745). TOP: GI-ko herria. ANTROP: *ApV* 1, 10, 36.
- ALZATE “Empino, *jasoera, alzatea, goratzea*”. HIZT: 1745. TOP: Is 100 (Elgoibar). ANTROP: *ApV* 36, 107. 1377 (NB, GI, LA eta, batez ere, NA)
- AMEZAGA “Carvallar, *amezqueta, amezaga*”. HIZT: 1745. TOP: 1025 (*Amezaha*, AR). Is 118 (Isurieta). ANTROP: *ApV* 40. 1500 (AR, NB, GI, LA eta, batez ere, BI).
- AMEZKETA “Carvallar, *amezqueta, amezaga*”. “Quexigal, *amezqueta, ameztia*”. HIZT: 1745. TOP: GI-ko herria. ANTROP: *ApV* 40, 373. XIII. m. (BI, LA eta, batez ere, GI eta NA). 1610 (Azpeitia).
- AMEZTI “Quexigal, *amezqueta, ameztia*”. HIZT: XVII ea. Azk (*amezti, ameztoi, ameztui* “quejigal”). EH (XVII ea.). Elhuyar (*amezti* “melajar, bosque de melojos”). TOP: *Amezti* (NA-ko herria). *Amezti* (baserria; Andoain, 1813). Is 97 (Igueldo). *Amezti* (zuhaixtxa-basoa, Azpeitia). ANTROP: *ApV* 40, 556. (GI eta, batez ere, BI).
- ANTIA “Gigante, viene de el Bascuence *goiantea*, que significa lo mismo; y *goiantea* se dixo de *goiantia*, que significa alta o superior soberbia y sobervio: *goi goya*, alta, superior; y *antia*, soberbia y sobervio”. “Osadía, es de el Bascuence *osandia*, y significa entereza grande y soberbia, de osoa, entero, y *andia, antia*, grande, soberbio”. HIZT: 1745. TOP: Is 113 (Cegama). ANTROP: *ApV* 62.
- APAIZTEGI “Prebiterio, *apaizteguia, apezteguia*”. HIZT: 1745. Azk (*apaiztegi* “casa cural”). EH ([1265], 1745). Elhuyar (“1. casa cural. 2. seminario”). ANTROP: *ApV* 62. 1532 (GI). 1682 (Azpeitia).
- APEZTEGI “Presbiterio, *apaizteguia, apezteguia*”. HIZT: 1745. TOP: *Apeztegia* (etxea; Andoain, 1768). ANTROP: *Apezteguico* (1265). 1698 (BI, NB, GI, LA, ZU eta, batez ere, NA).
- ARANTZIA “Espinoso, *aranzduna, larduna, arantzia, lartia*”. HIZT: 1745. ANTROP: *ApV* 51. *Arancia* (1346, GI).
- ARANZADI “Espinlar, espinal, *elorriaga, larraga, aranzaga, aranzadia, larradia*”. HIZT: 1745. EH (*arantzadi* 1916). Elhuyar (“espinal, zarzal”). TOP: Is 111 (Ezquioga). ANTROP: *ApV* 70, 185. 1346 (AR, BI, GI, LA, NA).
- ARANZATE “Maleza de espinas, &c. *sasitea, aranzatea*”. HIZT: 1745. TOP: Is 92 (Irun). ANTROP: *ApV* 70. 1325 (GI).
- ARANZIBIA “*Oxyacantha, arancibia*”. HIZT: 1745. TOP: *Arancibia* (etxea; Andoain, 1615). ANTROP: *ApV* 70. 1321 (BI, GI, NA).
- ARBITZA “Nabal, nabar, *arbidia, arbitza, arbizua*”. HIZT: 1745. TOP: *Arbitza* (laborelur eta belardia; Andoain, d.g.). *Arbitza* (baserria; Andoain, c. 1620). ANTROP: *ApV* 73. (GI).
- ARBIZU “Nabal, nabar, *arbidia, arbitza, arbizua*”. Cf. *arbizukoa* “nabería”. HIZT: 1745. TOP: NA-ko herria. ANTROP: *ApV* 73. 1200 (AR, BI, GI, NA). 1559 (Azpeitia).
- ARBOILA “Morrillo, *arboilla, arri biribilla*”. “Tejo, para jugar, *arboilla*”. “Peladillas de arroyo, &c. *arboillac*”. Cf. *arbolandea* “cubo de muralla”, *arboilchoa* “tejuelo, tejo pequeño”. HIZT: 1745. TOP: *Arboilleta* (parajea; Andoain, 1914).
- ARBURU “Canes, en los edificios, siendo de madera, *zuburua, zurcosca*; de piedra, *arburua, arcosca*”. HIZT: 1745. TOP: Is 93 (Oyarzun).
- ARETXAGA “Arboleda, *arboladia, zuaztia, arechaga, ezcurza, ezcurduya*”. HIZT: 1745. TOP: AR-ko herria. ANTROP: *ApV* 77.
- ARGEDA “Retención, *cemaida, argueda, guelditza, gueratzed*”. Cf. *argedakor* “retenedor, retenido, retentivo”, *oroitzaren argedadalla* “retentiva de memoria”, *arge-*

*dallea* “retentiva, virtud retentrix”, *argedatu* “retener”. HIZT: 1745. TOP: 1082 (Arguedas).

ARGINDEGI “(Oficina de) canteros, *arriola*, *arguindegua*”. “Taller de canteros, *arguindegua*”. HIZT: 1745. EH (*hargindegi* 1745). Elhuyar (“taller de canteros”). TOP: *Argindeggi* (etxea; Andoain, 1615). Is 96 (Astigarraga), 103 (Anoeta), 105 (Ibarra). ANTROP: *ApV* 78.

ARIIBE “A leve, traidor, puede venir de el Bascuence *ariebe*, el que anda por debaxo y a escondidas, como los alevosos; *arieba*, *bearia*, *etoa*, *etoya*”. Cf. *ariebaketa* “alevosía”, *ariebeatu* “hacerse aleve”. HIZT: 1745. TOP: NA-ko herria.

ARISTEGI “Robledal, *ariztia*, *aristegua*, *arizaga*, *ezcuzta*, *ezcurduia*”. HIZT: *hariztegi* 1715. Azk (*ariztegi*, *hariztegi*... “robledal”). EH (*hariztegi* 1715). TOP: 1170 (Arizegui, NA). ANTROP: *ApV* 77, 554.

ARIZAGA “Izaga, juncal, es voz Bascongada, *izaga*, *iteguia*, de *ia* junco y la terminación de frecuencia *aga*, como en *arizaga*, *arteaga*”. HIZT: 1745. TOP: *Arizaga* (baserría; Andoain, c. 1620). Is 101 (Placencia), 102 (Andoain, Aduna), 114 (Azpeitia), 116 (Anzuola). ANTROP: *ApV* 77.

ARIZTI “Robledal, *ariztia*, *aristegua*, *arizaga*, *ezcuzta*, *ezcurduia*”. HIZT: XVII ea. (*haritzti*). Azk (*arizti*, *harizti* [s.v. *ariztegi*] “robledal”). EH (*harizti* [1052], XVII ea.). Elhuyar (*harizti* “robledal; robledo”). TOP: 1054 (*Ariztia*, NA). *Ariztia* (belardia; Andoain, d.g.). Is 92 (Irun), 116 (Anzuola). ANTROP: *ApV* 77.

ARKAIA “Cecina, [...] *arcaya*, *aracaya*”. “Puño de espada, *escaya*, *euscaya*, *arcaya*”, “Vela de cera, &c. candela, *arcaya*, *argucaya*, *ezcorra*”. Cf. *arkaitu* “acecirar”. HIZT: 1745. Azk (*arkai* “1º vela. 2º cebón” < Iturriaga). TOP: 1025 (*Arcadia*, AR).

ARRASATE “Demolición, *arrasatea*, *barrajadura*, *deseigoa*, *deseguindea*, *lurreratzea*”. HIZT: 1745. TOP: GI-ko herria.

ARRATIA “Agusanado, *arreztatua*, *arduna*, *arratia*, *harabartua*, *arrez betea*”. “Gusaniento, *arduna*, *artia*, *arratia*, *cochoduna*, &c.”. HIZT: 1745. Azk (*arratia* “gusaniento” < Aizkibel) (31). TOP: 1053 (BI). *Arratia* (Andoain, 1615).

ARRIAGA “Guijarral, *arriaga*”. HIZT: 1745. TOP: 1025 (AR). *Arriaga* (etxea; Andoain, 1851). Is 92 (Irun), 105 (Verastegui), 116 (Anzuola). *Arriaga* (soroa; Azpeitia, 1762). ANTROP: *ApV* 89.

ARRIETA “Pedregal, *arcoscadía*, *arrieta*”. HIZT: 1745. EH (*harrieta* 1745). Elhuyar (*harrieta* “pedregal”). TOP: 1066 (AR), 1071 (BI), 1094 (NA). *Arrieta* (etxea; Andoain, 1615). Is 92 (Irun), 93 (Oyarzun), 94 (Pasage), 100 (Motrico), 111 (Beasain), etab. ANTROP: *ApV* 89.

ARRIOLA “(Oficina de) canteros, *arriola*, *arguindegua*”. “Oficina, quando se añade de lo que es, se hazen bien con *ola* y *quintegua* pospuestos, oficina de alfareros, *loyola*; de canteros, *arriola*; de herreros, *burdinola*; de carpinteros, *egurrola*, *zuola*, &c.”. HIZT: 1745. Azk (*arriola* “lugar pedregoso de alguna extensión” < Astarloa). TOP: AR-ko herria. Is 95 (San Sebastián), 96 (Usurbil), 97 (Igueldo), 99 (Iciar), 100 (Elgoibar). ANTROP: *ApV* 89, 90.

ARROKI “Esponja, *arroquia*, *beloquia*, *ezpoiñia*”. Cf. *arrokitu* “esponjar”. HIZT: 1745. Azk (“Algunos, después de Larramendi, aplican esta palabra a la esponja”). EH (2 *harroki* 1745). Elhuyar (*harroki* “2. (Zool.) esponja”). ANTROP: *ApV* 92. *Arroquia* (1340; NB, GI, LA, NA, AR).

(31) Bigaren adieran Azkuek ibarraren izena jasotzen du.

- ARRUTI “Arrogante, *arrutia, arrutia, furfuiatsua, facatia, antusteduna*”. “Jactancioso, *audiacatia, otsarrotia, arrutia*”. Cf. *arrutiro* “arrogantemente”, *arrutitu* “jactarse”. HIZT: 1745. ANTROP: ApV 90. 1566 (AR, BI, GI, LA, ZU).
- ARTADI “Maizal, *maizadia, artadia*”. HIZT: 1745. Azk (*artadi* “maizal”). EH (2 *artadi* 1745). Elhuyar (“encinar”). TOP: GI-ko herria. ANTROP: ApV 95. 1650 (AR, BI, GI).
- ARTEAGA “Encinal, encinar, *arteaga*”. “Izaga, juncal, es voz Bascongada, *izaga, itegua*, de *ia* junco y la terminación de frecuencia *aga*, como en *arizaga, arteaga*”. HIZT: 1745. TOP: 1025?, 1059 (NA). BI-ko herria. Is 98 (San Miguel Artadico), 101 (Placencia), 108 (Villafranca), 116 (Vergara), 117 (Mondragon). Azpeitia (laborelur, belardi eta zuhaixka-basoa). ANTROP: ApV 10, 95. 1346 (AR, BI, GI, NA).
- ARTIA “Gusaniento, *arduna, artia, arratia, cochoduna, &c.*” HIZT: 1745. TOP: GI-ko mendi-multzoa. *Artia* (parajea; Andoain, 1769).
- ARTOLA “Gargoles, muescas de las tablas de cubas, &c. díxose de el Bascuence *arto-lea*, que significa lo mismo, de *arte* entre, y *olea tabla*”. HIZT: Elhuyar (*arto-hol* “tabla en que se lleva el maíz al horno”). 1 *artola* “ik. kartola (1)”. 2 *artola* “(Z) cabaña de pastores en la montaña”). TOP: Is 108 (Amezqueta). ANTROP: ApV 19, 75, 95, 483. 1655 (AR, NB, BI, GI, LA, NA, ZU).
- ARZELLU “Bolsa, *arcellua, cizcua, chiscua, bolsa*”. “Escarcela, bolsa larga que se traía sobre el muslo, y oy el bolsillo de el cinto, viene de el Bascuence *istar-cellua*, síncope de *ister, istar arcellua*, que significa bolsa de el muslo, y de *istarcellua* se dixo *escarcela*”. Cf. *arzellutxo* “bolsilla”. HIZT: 1745. ANTROP: *Arzellus* (ApV 100).
- ASTIGARRAGA “Arboleda de ellos [tilos], *astigarraga, astigardia*”. HIZT: 1745. TOP: GI-ko herria. ANTROP: ApV 103. 1668 (BI, GI, LA, NA).
- ASTORKI “Onobryche, planta, *astorquia*”. HIZT: 1745. ANTROP: ApV 105.
- ATXAGA “Peñascal, *aitzaga, achaga, aitzadia, arcaizdia, peñaga*”. “Breñas, tierras ásperas y de peñascos, *aitzeta, arcaizteac, achagac*”. ANTROP: ApV 21. 1478 (AR, GI eta, batez ere, BI).
- AUNZTEGI “Chibetero, chibitil, chibital, *aunztegui, anchumetegui, aumeteguia*”. HIZT: 1715 (*ahunztegi*). Azk (*aunztegi* “corral de cabras” < Arakistain). Elhuyar (*ahunztegi* “corral de cabras”). ANTROP: ApV 114. 1566 (GI).
- AUSTEGI “Cenicero, *austegua, erraustegua*”. HIZT: 1745. Azk (*austegi, haustegi* “depósito de ceniza en la cocina”). EH (*haustegi* XIX b.). Elhuyar (*haustegi* “cenicero”). TOP: Azpeitia (laborelurra). ANTROP: ApV 117. 1587 (G). 1587 (Azpeitia).

Goian azaldu bezala, han-hemen begiratuz, sistematikotasunik gabe bilatuz aurkitutako aleak baino ez ditugu bildu hemen.

BAIONA “Bahía, es voz enteramente Bascongada, y significa puerto; y llamamos *bayona* al buen puerto, y aquella deprecación frecuente en labortano *bayonan eltzea*, de que lleguen felizmente al puerto”.(32) “Puerto, *baiya, bayona, portua*”, “Surgidero, *baya, bayoná, caya*”.

BERASTEGI “Baxada, *jachiera, beerastea, berastegua, jauspidea*”.

## 2. ERANSKINA. Onomastika A letratik kanpora

(32) Baionaren izenaren etimologiaz hainbat aritu baziren ere (Garibai, Etxabe, Isasti, Etxeberri Sarakoa, etab.), zehazki etimologia hau Oihenartena da: “inde illa apud Vascones voti formula, *Bai onian helzea*, pro eo quod Latini optatum portum consequi dicunt” (Oihenart 1656: 49).

- ELEMENDI “(Monte, en que anda la) dula, *elemendia*”, “(Monte de pastos para) ganando, *elemendia*”.
- ELORRIAGA, ELORRIETA “Espinar, de espinos, *elorrieta*, *elorriaga* <-ega>“ (s.v. *espino*).
- EREÑO “Sementera, la obra de sembrar, *ereitea*, *ereintzea*, *ereiñoa*”.
- GAINTZA “Alteza, soberanía, superioridad, *gaindea*, *gaintza*, *garaitza*”, “Eminencia, altura, elevación, *gaintza*, *gaindea*, *garaitza*”, etab.
- GARMENDIA “Ahumada, en las atalayas, *garmendia*, *queeteda*”, “Angaro, ahumada para avisar, puede venir de el Bascuence *an garrá*, allí llama de fuego. *Garmendia*”.
- GATZAGA “Salina, salinas, *gatzaga*, *gazquintegua*”.
- GETARIA “Fumante, *queeztarria*, *guetaria*, *queguillea*”.
- GETXO “Humillo, *quecho*, *guechoa*”.
- IKAZTEGIETA “Carbonera, *icazteguia*, *iqueztoquia*”.
- IZIAR “Tamujo, arbusto espinoso, *erratz latza*, *iñuncilatza*, *iciarra*”.
- LAKUNTZA “Acompañamiento, *laguntza*, *lacuntza*”, “Ayuda, socorro, *laguntza*, *lacuntza*”, “Concurso, ayuda, *lacuntza*”. Cf. “Lacayo, es voz Bascongada *lacayoa*, que significa lo mismo, y se compone de *lacun* o *lagun*, compañía y ayuda...”.
- LARRABEZUA “Pasturage, *larre guciaquicoa*, *larrabezua*”.
- LARRAÑAGA “Eras, *larrañaga*”.
- LASARTE “Lastre, especie de piedra tosca, es voz Bascongada, *lastrea*, *lasta*, síncope de *latsarte*, *lasarte*, entre arroyos u riachuelos, que es donde se encuentran tales piedras”.
- LEZO “Fieltro, *lezoa*”, “Fieltro, sobretodo para defensa de el agua, *lezoa*”, “Sobretodo, para defender de el agua, *lezoa*, *soingaña*, *gucigaña*”.
- LIZAUR “Monacillo, monago, monaguillo, *lizaurra*”.
- MANURGA “Coche, *manurga*, *cochea*”.
- MAÑARIA “Mañero, el que tiene maña, *mañeru*, *mañaria*”.
- MARKINA “Margen, esta voz y la Latina *margo*, *marginis*, son de el Bascuence *marquina*, *marquina*, que significa lo mismo, y se compone de *marr*, *marra*, raya, límite, *guina*, *quina*, el que le haze y pone, y a la margen pone raya o límites <-er> a lo que se contiene dentro de las márgenes, *Marguina*, *ertza*, *bazterra*”. Cf. *margindu*, *markindu* “margenar, marginar”, *marginar*, *markinar* “marginal”.
- MENDARO “Almoradux, mayorana, yerba, *mendaroa*”, “Mayorana, yerba, la misma que almoradux, *mendaroa*”, “Serranía, *mendaroa*, *aitzadia*, *mendartea*”.
- MUNITA “Alcor, voz antiquada, lo mismo que cerro, *mendisca*, *munita*”.
- ORIO “Oportunidad, *mugoná*, *orioa*, *parada*, *carazá*”. Cf. *orioro* “oportunamente”, *orizoko* “oportuno”).
- ORMAETXEA, ORMAISTEGI “Horma, es voz Bascongada, *orma*, que en su primera significación quiere decir pared o tapia hecha ajustadamente, y por eso *ormaechea* a la casa fabricada de tales paredes y tapias, y *ormaiztegui*, contracción de *ormaechetegui*, parage de casas fabricadas de tales tapias y paredes”, (33) “(Lugar donde se) empareda, *ormaistegui*”. Cf. *ormaitea*, *ormestea* “emparedamiento”).

(33) Pliniogandik datorren gaia (Poza, Isasti, Moret, etab.), baina zehazki Etxaberena: “y a la [casa] que está cercada de pared o tapia, llamauan *Ormaychia*, por llamarse a la pared *Horma* en mi lenguaje, como también se halla que en toda España se llamaua assí, de quien permanecen hasta oy rastros de ello, llamándose en Castilla a las tapias *Hormazos*” (Etxabe 1607: 15).

OROZKO “Público, *otsandequia, ochandiquia, aguerria, aguirria, jaquiña, orozcoa*”,  
“(Muger) pública, *emacume orozcoa*”.

OSINAGA “Ahozinar, estrecharse con profundidad el río. Viene de el Bascuence *osiná*, que significa profundidad en los ríos, y *osinaga* los parajes profundos y frecuentes de el río”, “Hocino, angostura honda en los ríos, es voz Bascongada *osina*, como se dixo en la voz *ahocinarse*, y significa esso mismo, y donde ay muchos hocinos, *osinaga*”.

UNTZAGA, UNTZETA “Hederal, *untzeta, untzaga*”.

ZUMARRAGA “(Alameda de) negrillos o álamos negros, *zumardia, zumarraga, zumarreta*”.